



Ana Egiguren
Basakaitz Herri Ikastetxea (Aizarnazabal)
1. Saria Lehen Hezkuntza Neo (Hamahirurok)
Argazkiak: Sara Santos

“Kosmodiseako gauza onenen artean, ikasleen lanak Internet bidez konpartitzeko aukera aipatu behar da”

Ana Egiguren, Basakaitz Herri Ikastetxekoa, Lehen Hezkuntzako kategorian –Neo- lehen saria lortu zuen 13 ikasleko taldearen arduraduna da.

- Nola baloratzen duzue, orokorrean, Kosmodisean parte hartu izanaren esperientzia?
- *Orokorrean, esperientzia positiboa izan da. Proiektu honen bidez IKTen erabilera erreala egin dugu. Egindako jarduerak oso esanguratsuak eta baliagarriak izan dira ikasleen ikasketarako. Hiru adin desberdineko ikasleek taldean lan egin dute.*
- Zure iritziz, zer interesatu zaie gehien ekimen horretako ikasleei?
- *Landutako gaia – kurriloak- egokia izan da. Hiru misioetarako sortutako lanak motibagarriak izan dira. Proiektu honek ikus-mintzaira ezagutu eta erabiltzeko aukera eman die (bideoa, argazkiak) eta baita soinetan oinarritzen den mintzaira ere*

(soinuak, musika, ahotsak... grabatu), oinarrizko gaitasunak garatuz (irakurmena, idazmena, ulermena, arrazoimena...).

- Zein iritzi izan dute neska-mutilek lortutako emaitzei buruz?
- *Ona. Ikasleek gustura egin dute lan. Interesgarria iruditu zaie Neo sistemako parte-hartzaileen lanak ezagutu eta partekatzeo aukera.*
- Zure ustez, ikasleentzako zein balio positibo eskura daitezke Kosmodisean parte hartuz?
- *Ikasleen sormena sustatzeko aukera eskaintzen du, komunikazioa indartu, beren arteko lankidetzara garatu, ikasleen ideiak eta ahaleginak garatu...*

ONENA ETA OKERRENA

- Zein da 2007-2008 Kosmodiseatik azpimarratuko zenukeen gauzarik onena? Zein alderdi hobetu beharko liriateke, zure ustez?
- *Onena: informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzeko, multimedia baliabideak ezagutzeko, taldean lan egiteko, Interneten ikasleen lanak partekatzeo, eta abar egiteko ematen duen aukera.*

Hobetu behar dena: Kosmoquestei dagokienean, adin hauetarako rol gehiegi. Baina proiektua garatzerakoan malgutasunez jokatu behar dugu, eta gure kasuan, rolak egokitu ditugu. Batera lan egin dugu lanak antolatu, diseinatu, gidoiak egin, grabatu etab. egiteko garaian, eta horrela, ikasle guztiek jarduerara guztietan parte hartu dute. Aurtengo edizioa pasa den urtekoa baino hobeto zegoen planifikatua. Ikasle eta irakasleok (maila hauetan irakasleen parte-hartzea handiagoa da, ikasleen gaitasun informatikoa txikiagoa baita) denbora gehiago izan dugu ariketak diseinatu eta bukatzeko. Hala ere, hirugarren jardueran oso justu ibili gara. Bideoa editatzeko eta zerbitzarira igotzeko arazoak izan ditugu. Bideoa editatzea ez da egokia adin hauetarako. Ikasle eta irakasleok jaso ditugun sariak gehiegizkoak izan dira. Guztiok jaso dugun "motxila" ondo dago, baina interesgarriagoa litzateke, musika-ekipoen ordez, ikastetxeek hezkuntza-baliabideak jasoko balituzte. Ondo iruditzen zait horrelako jarduerak sustatzea, baina lan horiek ez lukete hain sarituak izan behar.

- Kosmodiseako datorren edizioan parte hartuko duzu?
- *Ez dakit! Eskola txikietan aldaketak izaten ditugu urtero, taldekatze berriak, proiektu berriak... Kosmodiseako bi edizioak informatika saioetan landu ditugu, baina ezin dut ezer esan datorren ikasturteari buruz.*

